

Euskara zutik Bera'n

Norbaitek jakin naiko ba'lu nolakoa izan den «NAFARROA ONEZ 1994» delako eguna Bera'n, idazle baten iritsia azalduko nioke gogotik.

Lenengo biotz zartakoa ango giroa ikusita, giza ugoldearena izan da. Alde batera edo bertzerantz begiratzen zenula, gizasemeak nunaitik ur aundien antzera zijoazten eta erria lertzen ezin denak arturik. Bazter guztietatik sartzen ziren txiki eta aundi.

Bera'ko erriak bat egiten zuen euskararekin. Ikastola zeukan oñarri. Gazte batzuen asmoa izan zen orain dela ogei urte (1974). Gaur gurasoak dira oñarri ta babes, irakasle ta andereñoak ezitzaile ta bultzagileak. Egun ontan berriz erriko irutik bat laguntzen. Denak zutik eskua ematen. Euskarak laguntza osoa merezi dula, ba dakite. Enparantzak, soroak, basoka euskaraz oiuka ari dire gaur. Euskara, bazter guztietan mintzo da itz lauz, egun osoan.

Euskalerria'k Nafarroa'kin bat egiten du. Euskalki denetako otsak entzuten dire. Nafarroa Euskalerria'rekin, bakarrik euskerak batutzen du. Arabar, Bizkaitar, Gipuzkoar, Iparrarrak anayak bezala datozte. Arratsian, edan tokian Benafar taldea eten gabe abesten zuten euskaraz, ondoan Iruñeseme batzuek entzuten zoriontsu. Ala zion iragarki aundi batek karrikan: «EUSKARAK MUGARIK EZ».

Batuak ikusten nituen lengo eta oraingo gizonak Bera'n. Nere ondoan nabaritzen nituen jauzika pozik lertzen Bera'ko euskal idazle zar ayek: Aita Erroman, Inazio Larra-mendi ta Joakin Aldabe. Bizirik ikusi nai zuten euskara polit ori Bera'n. Nolako ametsak egin zituzten, baita aunitz idatzi ere eta ori dena euskara maite zutelako. Gaurko eguna ikusita Beran ez lukete lorik egingo.

Aipatu nai nituzke ere, ikusi ni-



tuen Bera'ko ikur nagusiak. Milaka egitarautan ageri zegoen Izoki arrai indartsua, Bidasoa ibaiko arrai nagusia da, guztiz berezia ta orkoa ezin ohea.

Beste aldetik atsegiña ematen zигun ikustek Jose Lantz, burnia lantzen, esku lan zoragarriekin inguratua. Su gorrian sartu burni ziria, malloakin naikoa jo xingurri gainean ta ziztoa atera ondotik il-tze sendoa egiña.

Ba zegoen ere bertako margolarien erakusketa. Ez da gaur Nafarroa'n bertze erririk izango, Bera bezelakorik orrenbertze margolari onekin. Denen buru Juan Larra-mendi. Egun berexi ortan, Bera'ko euskara entzun eta mintzatu nai nuen. Bordaberri baserrian sarrera eman zidaten. Izkuntza xamur batean aurtzaroko egunak Suspela auzoan aipatu genituen.

Sara'ko mugatik eraman ninduten etxeruntz. Egunaren azkeneko argia artu nuen eta nere baitan auxe nion: GAUR BERA'KO ERRIAK NAFARROA EDERRA-GOA EGIN DU'.

Latxaga



Itoitz bai? Itoitz ez? Bai? Ez?

Ez dakit ba ote dan munduan, gure Erri au bezin Erri istilluzalerik. Eskerrak gutxi gerala euskaldunak. Txinatarrak bezala milla milloi ba'giña, zer gertatuko ote litzake munduan?

Nere ustez, Erria bera pakezalea da. Eta orrenbeste istilluz aspertuta dago. Baña gure Erri paketsu orren artean bada istillulari-talde bat munduan besterik ez bezelakoa, eta talde orrek sortzen ditu gure arteko zalaparta guztiak, eta ortarako, beste iñongo zalapartaliak beño trebeagoak bait dira, badirudi Erri guztia asten dela oiuka, beraiek aia irikitzen duten bezin pronto.

Talde ortako jendeak, batzuk politikariak dira, eta badakite zer ari diran eta zer lortu nai duten. Zalaparta bera maite dute; zalapartaren azpian egon ditekian arazoaz ez zaie ajolik batere: bedi Iruña'tik Donosti'rako berebil-bideak, arazoa beragatik ajolik ez zaie, zalaparta utsa ajola zaie, Euskalerria'n atsegiñik- eza sortuz «iraultzarakoa giroa» prestatzeko.

Beste batzuk, ekolojistak dire, eta nere ustez atzipeturik dabilte. Agintariak berak ere ez dire erru orotik gabe gelditzen, Erri guztiaren aurrean gauzak argi eta garbi agertzen jakin ez dutelako.

Ni ez naiz politikari. Baña fi-

losofi-ikasketak egiterakoan ongi ikasi nun logika, eta logikaren aldetik, zerbait-txo bat esan nai diet, gaur, guzti oiei.

- Politikari marxista zakarrei, izadiko gauzarik bikaiñena, aundiena eta garrantzitsuenak gizakumea bera dela. Ez, «gizakume» ona; ez, gizakume «adiskidea»; ez, gizakume «laguna», gizakume oro baizik. Orregatik, «ETA mátalos» oiuka ibilli oi diren «ekologista» oiek ez dute agoa irikitze esku-biderik.

- Badakit ez direla orrelakoak ekologista guztiak. Baña orrelakoak badirela ere badakit. Orrelakoak ez diren ekologista zintzoei onako aukerak irakurtzen dituzte.

- Ekologia izadiaren zainketa da. Gizakumea izadia zaintzera bearturik dago. Gizakumeak ordea ez dezake izadia Jainkoa ba-litz bezela gurtu. Izadia gizakumearentzat egiña izan zen; ez gizakumia izadiarentzat. Izadia gizakumearen sebitzurako da; ez, alderantziz, gizakumea izadiaren sebitzurako.

- Bearrezkoa denean, -berebil-bide bat edo ola bat edo urtegi bat egiteko adibidez, bearrezkoa denean- gizakumea izadiak baliatzen bearturik dago.

- Al den gaitzik txikiena egiñez, baña, gizakumeen bizimoduaren-tzat bearrezkoa denean, gizakumea izadiaren errañetan eskua

sartzera bearturik dago.

- Gauzak ongi egiten direnean, gizakumearen lanak ez du izadirik zakartzen. Alderantziz edertu egiten du. Adibidez, Gazteiz'en inguruko Araba'ko zelaia, askoz politagoa gelditu zen bertan egin ziren bi intzira edo urtoki ederrekin.

Loiola'ko aran edo ballada txukuna, milla aldiz politagoa dago Iñaki Deunaren omenez Ibero arkitektoak bertako eliz bikaña eraiki zunez gero.

Bearbada zuetako bateren batek ez du Loiola ezagutuko. Gutxi izengo dire ordea, Aralar'ko Deun Mikel goiangeruaren eliza ezagutzen ez dutenek. Aralar'ko mendi-katea, ez al dago askoz ederrago, bertako eliz erromaniko txukun orrekin?

Bear bada ikusia izango zera Donosti. Donosti'ko erreka zez al dago milla aldiz atsegiñagoa bertako zubi lirain aiekin? - Agintari-iei ere zerbait esan nai nieke. Ez dutela erriari, bearrezkoa zen bezala, Itoitz'eko intziraren garrantzia adierazten asmatu. Il-edo-bizirako gauza dela, diote, Nafarroa'rentzat urtegi ori. Ez dire ori jakiñarazteko gauza izen. «Suspenso» gure agintarientzat: !kalabaza!!! Baña egin bezate urtegi ori bearrezkoa ba'da.

Latiegi'tar Bixente

Berri ona

Aberatsaren txepelkeria

«Aurpegia illundu eta naigabez joan zen»
(Mk. 10,17-30)

ARRO eta burua goian dugula ibilli oi gera gauzak gustora eta nai bezala gure alde ditugunean. Alderantziz, ordea, okertzen zaizkigunean.

Badira berez oso irekiak direnak; badira, nola ez, beldurtiak. Berezkoa konpondu, zuzendu eta obetu daiteke. Arropuzak umiltzea, ordea, ez da erreza izaten. Goitik beera begiratzeak, arrokeri aundiz bizitzeak, besteak baiño geiago izateak ez du gizakia eldutasunera eta duintasunera bideratzen. Aske izateko bide guztiak isten ditu arrokeriak, uste izateak.

Beldurtiaren eta txapelaren akatsik aundiena eta okerrera beti besteen mende eta besteen esanetara bizitzea da. Dituzten iritziak defenditzeko kapaz ez dira. Ez dira aske sentitzen. Erabakiorrak diren pausoak ematen ez dira ausartzen.

Txepela oso erreza da engaiñatzen. Bi itz gozo erratea naikoa du iritziz aldatzeko; agian, ez da bat etorriko agindu zaionarekin, kontra ez egitearren, ordea, isil eta buru malkur geldituko da. Naigabea sortuko zaio.

Izerdi otza, nekea, arnasa estua, urduritasuna, tripako miña, ziurtasun eza, lotsa... dira txapelaren ezaugarriak nagusienak.

Eguno gizakia iritzi askoren menpean bizi da. Politiko batek itzerdi bat erratea naikoa da itxu-itxuan sinesteko. Diru apur bat edukitzea naikoa da besteak baiño geiago sentitzeko. Ebanjelioko aberatsaren txepelkeria ondo datorkio Jesus-i ondasunak eta aberastasunak dituzten arriskueta mintzatzeko. Dena dela, Jesus-en mireslea da aberats au. Belanuniko jarrikeri bere barruko kezka agertzen dizkio. Gizon zintzoa eta ona zela erakusteko? Egiten zuenarekin konforme ez eta zer geiago egin bear zuen jakiteko? Itxurakerietan ote zebillen?

Legea betetzen zuen; biotza, ordea, ondasunen mendean zeukan. Eta guk, zer? Lanaren fruitua den ondasuna, ona da; eta besteen sebitzuan jartzeak ez du penarik sortzen. Errez irabazitako diruak gure biotza gogortu eta aren menpeko egiten gaitu. Gizon ari «aurpegia illundu zitzaion eta naigabez joan zen». Ez zegoen ondo. Aberastasuren mende bizi zen eta askatasunik gabe. Ez zen kapaz bizitza bere edertasunean eta zoriontasun ederrean ikusteko eta bizitzeko. Naikoa ote duzu legea bete eta «or konpon, Mari Anton» bizitzea? Noren eta zeren mende bizi gera? Zergatik naigo dugu ondasunaren morroontza askatasunaren bizitza baiño?

Artzalluz'tar Joxemari

Ezkilak

«ARKUPEAK» Jubilatuen Elkarteak beti ari da lanean eta antolatzen dituen bidai guztiak badute arrakasta. San Migel bihamunean Igantziko herrian ginuen billera jubilatuek. Herri ontan bestak eta bazen mugimendu. aipa dezadan denen gañetik «Ezkil-jotze», Igantziko eliz dorreko ezkil haundietan egin zutena eta hauek guztiak ARKUPREAK' antolaturik. Lehenik billera bat izan ginuen Igantziko elizan eta Martin jaunak ezkilgen kondaira erakutsi zigun hitzaldi interesgarria erakutsirik. Ezkilek noiztik datozen, zer lan miresgarria egiten duen orain eta aintzinako denboretan egin zutena. Ezkilaren mintzoa eta edaten duen meza, norbait hil dela, Batzarrea dela, Mezak direla eta Elizkizun guztiaren mezulari, su-ezkilak, argi-ezkila, ilun-ezkila eta gehiago ere. Lenagoko denboretan garrantzi handia zeukan ezkil jotzeak, orain baiño gehiago hain segur baina orain ere ezkilena lana onuragarria da, alaiak direnean bozkarioa eta tristeak direnean hunkigarriak eta beldurgarriak ere su- ezkilek jotzen dutenean.

Gure haur denboretan «ilunezkilek» garrantzi handia zuten eta famili guztietan amak erratan zuten, «ilunezkeleko» etxera. Anbateko larderie izaten ginuen haur denborean batez ere neskaticoak, «ilunezkile» aditu orduko lasterka etxera.

Igantziko «ezkil-jotze» hontan bederatz lagun bildu ziren eta hona hemen ezkil jotzaleen zerrenda:

Josu Goia (Bera). Jose Martin (Doneztebe). Maritxu Aizpuru (Goizueta). Kandido Aizpuru (Leitza). Jose Luis Zelaia (Igantzi). Antonio Gerra (Igantzi). Antonio Senau (Lizarraga). Tomas Ganboa (Arrua-zu). Teresa Mindegia (Oiz). Denek lan miresgarria egin zuten eta erakutsi zuten beren ahalmena. Zorionak!

Ezkilen soñu miresgarria zenbait kantu eta bertsoetan agertzen da. Hona hemen:

Urrundik ikusten dut, ikusten mendia,
Beraren gibelean baitut nik herria;
Jadanik dut aditzen, zorion handia!
Ezkila maitearen hasperen ezitia.

□ □ □

Ezkila zer ote duk hik egun erraiten?
Urrunera zer berri ote duk igortzen?
Mendiek edoipetik dautek ihardesten,
Hik errana zerura ditek helarazten.

□ □ □

Landako langilea, artzain mendikoa,
Iturriko bidean doan neskatoa,
Aditurik ezkila, hire boz lainoa,
Otoizten hai dituk Ama zerukoa.

M. Izeta